


# ESKOLA NOLA BIHURTU ESPAZIO PSIKOLOGIKO SEGURU



# LARRUN #284

# “NOLA UTZIKO DUT MATEMATIKA EMAN GABE? BADA, BAI, UTZI, LEHENTASUNA GAIZKI DAGOEN UME HORI DELAKO”

EGILEA | **MIKEL GARCIA IDIAKEZ**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

**H**aur eta gazteen egoera emozional eta psikologiko txarra dela-eta, irakasleak gaudituta daudela eta ikastetxe bakoitzean psikologo bat ezarri beharko litzatekeela aldarrikatzen du mugimendu batek. Hari horri tiraka, jakin nahi izan dugu zein den pandemiak eskoletan utzi duen arrastoa eta horri aurre egiteko hartu (ez) diren neurriak, zer esan nahi duen eskola espazio psikologiko segurua izatea eta hori nola lortzen den, haur eta gazteen ongizatea zaintzea nola uztartzen den presio akademiko eta curricularrarekin, irakasleak

zenbateraino dauden prestatuta egoera horiei aurre egiteko eta zein den eta izan beharko lukeen beraien rola, zer nolako esperientziak aurkitu ditzakegun han-hemenka ikastetxeak espazio psikologiko seguruago bilakatzeko bidean. Irakaskuntzaz, psikopedagogiaz eta psikologiaz asko dakiten hiru emakume bildu ditugu mahaiaren bueltan, eta pista ugari eman digute Mireia Centeno Gutierrezek, Agurtzane Martinez Gorrotxategik eta Artizar Susperregi Zumalakarregik. Garbi dute: hezkuntzan lehentasunak eta begirada non jartzen ditugun, hor dago gakoa.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.822 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2023ko apirilaren 30a

---

■ **Zer da zuentzat ikastetxea espazio psikologiko seguru izatea? Zein oinarri bermatu beharko lituzke horrelako espazio batek? Zenbateraino betetzen du hori eskolak?**

**MIREIA CENTENO:** Eskola espazio psikologikoki seguru izateko haur eta nerabeen oinarritzko behar emozional eta instintiboei erantzun behar diegu: batetik, atxikimendu beharra, garrantzitsuena, txikitan eskolaratzen ditugun momentuan oinarri sendo bat lortzeko, eta aurrerago komunitate baten kide izateko beharra dugulako eta ongizatearen oinarrietako bat taldearen partaide sentitzea delako. Horri

gehitu beharko genieke ikasteko eta esploratzeko beharra, eta sentitzen dituzten emozioak ulertzea eta akonpainatzea.

**AGURTZANE MARTINEZ:** Segurtasunak zerikusia du umea ikustearekin eta jakitearekin bere behar emozionalak aseta daudela, eta Mireiak aipatu moduan atxikimendua inportantea da: zentzu horretan, heldua pertsona erreferentea da umeentzat eta irakasleak seguru egon behar du, segurtasuna transmititzeko. Irakaslea sentikorra bada eta gai bada umeen behar horien kontzientzia izateko eta horiei erantzuteko, umea seguru sentituko da; aldiz, irakaslea sarkorra

bada, beharbada ez da hori gertatuko eta umearentzat ez da hain testuinguru seguru izango. No-labait, eskolak duen planteamendurekin ere lotzen da hori guztia: Hezkuntza Saitetik ikas mailari lotutako exijentzia bat dator eta esaten zaigu nolako umea atera behar den eskolatik, ume ideal bat dago eta ume ideal hori ez denak ziurrenik ez du segurtasun hori sentituko, eskola ez bada gai ume ideal ez diren horiei erantzuteko. Horregatik, eskolak baditu muga eta oztopo batzuk, alderdi akademikoari lotuta, eragin handia dutenak testuinguru seguru horiek lortzeko edo ez.



**EZKER-ESKUI** Mireia Centeno Gutierrez, Agurtzane Martinez Gorrotxategi eta Artizar Susperregi Zumalakarregi.



# Mahaikideak



## AGURTZANE MARTINEZ GORROTXATEGI

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Erandion jaioa, 1966an. Pedagogia Aplikatuan doktorea eta Pedagogia eta Hezkuntza Zientzietan (Hezkuntza Berrezia) lizentziatua da EHUUn. Aditua da hezkuntza inklusiboan eta ikaskuntza eta berrikuntza errazten eskola- eta erakunde-testuinguruetan. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko hezkuntza inklusiboko berrikuntza eta esku-hartzearen ildoan garatzen du bere ikerketa eta 2019-2020 ikasturteko Ikaskuntza eta Berrikuntza Errazteko Masterra (LIT), Hezkuntzako Rol Berrien diploma eta Erakundeetan Ikaskuntza Kudeatzeko Diploma koordinatzen ditu. Gaur egun Mondragon Unibertsitateko Humanitateak eta Hezkuntza Zientzietako fakultateko irakaslea da Irakasletza graduari, Master zein diplometan.



## ARTIZAR SUSPERREGI ZUMALAKARREGI

PT IRAKASLEA

Irunen jaioa, 1978. urtean. Musika Hezkuntzan diplomatua da eta Psikopedagogian lizentziatua, Euskal Herriko Unibertsitatean. 2001. urtetik irakaskuntza ari da lanean, sare publikoan. Urte hauetan guztietan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan aritu da irakasle, batez ere tutore, musika irakasle eta PT edo Pedagogia Terapeuta gisa. Azken hamaika urteetan, PT moduan egin du lan irakaskuntzan. Uneotan, Irungo Leka Enea ikastetxe publikoan ari da, konplexutasun handiko eskola gisa izendatua.



## MIREIA CENTENO GUTIERREZ

PSIKOLOGOA

Zumaian jaioa, 1985. urtean. Psikologian eta psikopedagogian lizentziatua, haur eta nerabeen psikologo klinikoa da, hezkuntza psikologian espezializatua. Urte batzuk kontsultan aritu ondoren, ikusi zuen haur eta nerabeek azaltzen zituzten arazo gehienak familian eta eskolan eskainiriko esku-hartze goiztiar batek prebenitu zitzakeela, eta erabaki zuen hezkuntza eta formakuntza munda salto egitea. Bere helburua da "haur eta nerabeen beharrak ezagutarazi, beraien eskubideak defendatu eta gizartearen helduentzako kontziente egitea, haur eta nerabeen osasun mentala zaintzeko".

## ■ Eskolan ongi moldatzeko idealtasun hori maila akademikoan kokatzen duzu?

**A. MARTINEZ:** Harago doa, exijentzia akademikoa bai baina gizarteak eskatzen duen pertsona eredia ere bete behar delako, zerikusia duena jokabideekin, egoteko eta izateko moduekin... Denok molde berekoak bagina bezala, baina aniztasunean bizi gara.

**ARTIZAR SUSPERREGI:** Nik argi daukat lehenetsun kontu bat dela eta bata gabe bestea ez datorrela: ikaslearen ongizate emozional eta soziala da oinarria, eta hori gabe arlo akademikoa ez doa aurrera. Alegia, bilatzen duguna emaitza akademikoa denean ere, bestea oso ondo zaindu, landu eta bermatu behar dugu, eta ez badugu horretan sinesten, jai dugu. Hezkuntza komunitateak hor jarri behar dugu gure begirada, ezinbestean: umea ongi dago, seguru dago? Pozik dator eskolara? Zer dakar etxetik, gai gara motxila hori pixka bat arintzeko? Ezin dugu dena konpondu, baina zerbait egin badezakegu, gainerakoa etorriko da ondoren. Eta egia da exijentzia batzuk egon badaudela, baina ikusten dudana da sarri irakasleok garelako exijentzia horiek gure buruari jartzen dizkiogunak: "Hau maila honetan ikasi behar dugu, hiruhileko honetan"; zergatik? Lasai, izango dugu denbora, oinarria ezarri ezean ez baitugu aurrera egingo, lehenetsunak agintzen du.

**A. MARTINEZ:** Halaxe da, baina horretarako umea erdigunean jarri behar da, eta ez dakit uneotan eskolek dituzten exijentziek ez duten eramaten erdigunean jartzera umea ez den beste zerbait, sarri lorpenak lehen mailan jartzera adibidez.

**A. SUSPERREGI:** Ulertzen dizut, baina uste dut hori beti jartzen dugun aitzakia edo arrazoia dela, eta errealitatean ez dagoela halako presiorik, egin daitezkeela beste

gauza batzuk. Eta egin egiten dira, gainera: irakasleok hartzen badugu ikasle talde bat eta baldin badakigu epe jakin baterako dugula talde hori, landu dezagun lehenengo talde kohesio on bat, goazen denok sozialki bat egitera, landu dezagun umeak seguru egotea taldean... eta oinarri hori guztia baldin badugu, gero ziztu batean joango dira, esperientziak erakutsi digu hala dela.

## ■ Egia da, halere, maiz entzun ohi dugula exijentzia akademikoak ez duela uzten beste guztia behar bezala lantzen. Exijentzia ezberdina da Haur, Lehen edo Bigarren Hezkuntzan, Batxilerren...?

**A. SUSPERREGI:** Hala da, ez da gauza bera Haur Hezkuntzan edo Batxilerren aritzea, baina funtsean, ongizatea bai ala bai lehenetsi behar da, bestela arlo akademikoak ere jai du.

**M. CENTENO:** Eta gainera, Haur eta Lehen Hezkuntzan ere erabili ohi da exijentzia edo presioaren argudioa, irakasleek eurek jartzen dituzte mugak, eta horren lekuko da maila berean ikasgeletako funtzionamendu erabat ezberdinak ikusi ditzakezula, irakaslearen arabera, batzuek eta besteek curriculum bera baldin badute ere.

**A. SUSPERREGI:** Gero eta argiago daukat ez dela eskola kontua, irakasle kontua baizik, eta irakasleak asko markatzen duela norabidea.

**M. CENTENO:** Ahaztu gabe ikastetxe bakoitzaren filosofiak ere pisua duela, zuzendaritzak zer bultzatzen duen eta zeri ematen dion garrantzia...

**A. SUSPERREGI:** Baina badakizu zorritzarez zer gertatzen den? Gelako ateak ixten ditugula, eta zuzendaritzak bultzatu dezake dinamika jakin bat, baina gero irakasleak atea itxi eta hor barruan gertatzen dena...

**A. MARTINEZ:** Eskola zer den eta zertarako galdetu beharko genuke, horren arabera antolatuko delako

modu batera edo bestera. Niretzat, eskola komunitate txiki bat izan beharko litzateke, bizitza gune bat, eta bizitza gune bat den heinean elkarbizitza ondo garatu behar da eta denon arteko zaintza egiteko neurriak jarri; komunitateko partaide diren guztien ongizatea bermatu beharko litzateke.

## ■ Pandemia garaian asko hitz egin zen, zenbateraino eragin zien haur eta gazteei. Horri buelta emateko zein neurri hartu da, ala pandemiaren ostean egun batetik bestera itzuli gara eskoletan ere "normaltasunera", betiko martxa eta erritmora?

**M. CENTENO:** Ez da bereziki ezer egin, aintzat hartuta gainera haur eta nerabeek min handia jasan zutela. Askok entzun genuen, "kontuz, honek ondorioak izango ditu", baina ez da ezer egin, eta orain ikusi dutenean gertatzen ari dena, protokoloak eta abar lantzen hasi dira. A. Susperregi: Ni konplexutasun handiko eskola batean ari naiz lanean, lehen ere halako profila duen batean aritu naiz hamar urtez, eta pandemiaren aurretik jada egoera latzak bizi genituen eskolan: ume batzuek behar handiak zituzten, esku hartzeko plan diseinatuak genituen... baina pandemiarekin hartu ziren neurriek erabateko atzerapausoa suposatu zuten egiten genuen horretan, justu kontrako norabidean zihoazelako eta hankaz gora jarri zutelako gure lana (ez ezer partekatu, ez egin talde lanik, distantziak mantendu, ez zaitez fio ondokoaz eta kontuz berarekin, maskara, beldurra, errua...), eta gogoratu behar dugu haur batzuk 42 egun egon zirela etxetik atera gabe; etxean ongi zeudenak tira, baina etxean egoera zaila zutenak... Gero esan ume horiei paseo bat ematera ateratzeko. Nik etxera deitzen nien, eta ez zuten atera nahi. Umeentzat oso gogorra izan da, eta orain jarrai-

tzen dugu lehengo hartu nahian. Oro har, esango nuke pandemiaren ostean zarata gehiago entzun bai, baina eskoletan ez dela ezer aldatu: gaia presenteago dago, baina praktikan egunerokoan irakasle bezala zer egiten duzu zure taldea aurrera eramateko (eta ez naiz ari arlo akademikoaz)? Zer egiten duzu beraien artean goxo egoteko, gatazkak modu osasuntsuan ebazteko?

**A. MARTINEZ:** Haurrengan erantzukizun handia jarri zen (kutsatu dezakezu, aiton-amonak hil ditzaitez...) eta adin horrekin ez dira gai hori guztia asimilatzeke. Horretaz ez da hitz egiten eskoletan, baina beldur hori hor geratzen da eta gero bihurtu daiteke nahasmendu, oztopo... Batzuetan, ikuspegi oso helduzentrista gailendu da: heldu moduan pandemiatik bueltatu naiz eta badakit ez dela ezer gertatzen, beraz pentsatzen dut haurrari ez zaiola ezer gertatzen, baina ez gara jartzen haurrak asimilatzeke duen gaitasunean, ez ditugu sortzen espazioak bizi izan dutenaz hitz egiteko, nola ulertu duten eta nola egin aurre horri.

**Haur eta gazteek buruko osasunari lotuta bizi duten egoera gizartearen arazo gisa planteatzen da, baina fokua eskolan eta dugun hezkuntza dinamikan jartzen badugu, hezkuntza sistema bera ere desoreka eta egoera horren konplize al da, hein batean?**

**M. CENTENO:** Haur batzuentzat eskola terapeutikoa izan daiteke, baita autoestimua igotzeko leku bat ere, etxean duzun egoeraren arabera eta dituzun gaitasun kognitibo, sozial eta abarren arabera; eta beste batzuentzat, kontrakoa izan daiteke, eskola-jazarpena jasaten baduzu, edo ez bazara emaitza batzuetara heltzen eta eskola estres eragile bihurtzen bada...

**A. SUSPERREGI:** Gure kasuan, haurrak hain daude egoera zaurgarrian,

lan egiten dugula egunero eskolara etor daitezen eta bertan goxo eta seguru sentitu daitezen.

**A. MARTINEZ:** Baina zoritxarrez eskola guztietan ez da hala. Pertsonaren balioa ez dago lortzen duenari lotua, pertsonak berak balio bat du, eta eskola gehienetan ikasleak du balioa baldin eta baldintza batzuk betetzen baditu, eta baldintza

horiek betetzen ez dituenak ez du hainbesteko baliorik. Esperientziatik diot, ume gor baten ama naizen aldetik: besteek egiten zuten horretara ailegatu behar horretan aritu behar izan du beti, nahiz eta bere ezaugarriak eta erritmoak beste batzuk izan, baina balioa ematen zaie baldintza horiek betetzen dituzten heinean.

Eskola batzuetako edo besteetako jardunetik harago, politikaren tresna bat da hezkuntza sistema, ongi diseinatua. Eta hori potentzial handiko arriskua da, batzuetan eskoletan gauzak egiten ditugulako politika horri erantzuten diotenak eta ez hainbeste haurren beharrei. Gaur egun, nire ustez, duela urte batzuk baino gehiago gainera, eskolak mantentzen ditu pribilegioak dituzten umeen pribilegioak eta opresioak dituzten umeen opresioak. Diskurtsiboki denok diogu eskolaren funtzioa dela egoera hori orekatzea eta iraultzea, baina esango nuke gure egitekoekin hainbat eta hainbat kasutan egoera mantentzen dugula eta pribilegioak ez dituzten umeek segurtasun falta handiagoa dutela eskolan, dituzten beharrak ez direlako hain erraz onartzen. Eta garbi utzi



**“EGIA DA EXIJENTZIA  
BATZUK EGON  
BADAUDELA, BAINA  
IKUSTEN DUDANA DA  
SARRI IRAKASLEOK  
GARELA EXIJENTZIA  
HORIEK GURE BURUARI  
JARTZEN DIZKIOGUNAK:  
‘HAU MAILA HONETAN  
IKASI BEHAR DUGU,  
HIRUHILEKO HONETAN’;  
ZERGATIK?”**

**A. SUSPERREGI**





nahi dut: ikastetxe batzuetan ez da hala, ongizatea erdigunean dute eta hala jarduten dute, baina ez dut uste hori orokorra denik.

**A. SUSPERREGI:** Izan daiteke, bai, zoritxarrez orokorra ez izatea, nahiz eta hala behar lukeen. Eta erabat ados nago, hezkuntza sistema politizatuta dagoela, beste arlo askoren moduan, eta gizartearen isla dela. Baina aldarrikatu nahi dut badirela irakasle asko beste modu batera pentsatzen dutenak eta lana beste modu batera egiten dutenak, eta beharbada hor jarri behar dugu indarra, saiatu behar gara gainerakoak kutsatzen.

**Izan daiteke, profil zaugarriagoa duten ikasle asko jasotzen dituzuen ikastetxeetan, sentsibilitate handiagoa duzuela irakasleek?**

**A. SUSPERREGI:** Egia da irakasle batzuek ez dutela ikastetxe hauetan lan egin nahi, ez direlako eskola errazak eta gure ikasleak ez direlako sartzen patroi jakin batzuetan. Agian irakasle profil bat animatzen da ikastetxe hauetan lan egitera eta

“PANDEMIAN ASKO ENTZUN GENUEN, ‘KONTUZ, HONEK ONDORIOAK IZANGO DITU’, BAINA EZ DA EZER EGIN, ETA ORAIN IKUSI DUTENEAN GERTATZEN ARI DENA, PROTOKOLOAK ETA ABAR LANTZEN HASI DIRA”

**M. CENTENO**

horregatik egiten dugu lan beste lehentasun eta begirada batekin. Azken finean, gurea bezalako ikastetxe batera begirada horrekin ez datorren irakaslea alferrik dator.

**M. CENTENO:** Eta begirada hori gainerako ikastetxeetan ere izatea litzateke egokiena, baina agian beste-lako espektatiba batzuk nagusitzen

dira. Nik hainbat ikastetxetan egin dut lan, eta hori oso nabarmena da: segun eta zein espektatiba dagoen zentro horretako populazioarentzat, lehentasun batzuk edo beste batzuk daude.

**Nola ikusten dituzue ikasleak emozional eta psikologikoki?**

**M. CENTENO:** Konfinamendu osteko lehenengo bi ikasturteetan aldaketa igarri nuen: ideazio suizida askoz gehiago, autolesioak... eta deigarriagoa izan da nerabeen artean, baina Haur eta Lehen Hezkuntzan ere ikusi ditugu lehen hain ohiko ez ziren antsietate kasuak. Momentu honetan nola gauden? Gaizki, pandemia aurretik baino okerrago, eta halako profilak mantenduko dira, gizartearen gaizki gaudelako eta eskola gizartearen isla ere badelako.

**Okerrago hori pandemiarekin lotzen duzu?**

**M. CENTENO:** Kasu batzuk esango nuke baietz. Zerbaitengatik antsietatea bizi izan duzunean, antsietate hori aurrerago errepikatzeke auktora gehiago dituzu, eta beraz, pandemian antsietatea bizi izan zutenek orain beste faktore batzuegatik antsietatea pairatzen jarrai dezakete. Ez nuke jakingo zehatz-mehatz esaten zein mailatan diren pandemiaren ondorio, baina arazoak daukela argi dago, egunerokoan ikusten ditugu eskolan.

**A. MARTINEZ:** Gizartea bera dago desorekan, sistema kapitalista honek nora eramaten gaituen ikusten ari gara. Gazteek eurek ez daukate batere ziurtasunik etorkizunean zer gertatuko den, ezjakintasuna itzela da. Krisi ekonomikoan gauden, ez dago lanik, lana izateko aukalo zenbat ikasketa mota behar dituzun, ez duzu etxean baliabide ekonomiko nahikorik hori egin ahal izateko... Eta horren erakusgarri da DBH edo Batxilerra bukatzean ikasketekin jarraitu nahi dutenen



%90ak ez dakiela zer egin, zalantza handiak dituzte zer ikasi nahi duten, nora jo nahi duten.

**A. SUSPERREGI:** Umeengan aldaketa esanguratsurik nik ezin dut nabarmendu, aurretik ere behar handiak ikusten genituen gure ikastetxean, baina pandemia izan da gauza bat inork espero ez genuena, ezustean harrapatu gaituena, eta denoi eragin diguna, gehiago edo gutxiago.

**Irakasleek nola kudeatzen dute egoera? Ba al dute horretarako erremintarik, denborarik, formaziorik? Gaindituta al daude?**

**A. SUSPERREGI:** Kostatzen zaigu gelditzea. Gaindituta gaude, kostatzen zaigulako esatea “gaur ezin dut matematika eman eta ez da ezer gertatzen; jolas garaian zerbait gertatu da eta ikastordua emango dut hori kudeatzen, edo agian arratsalde osoa; edo ikusten dut ikasle bat taldetik kanporatuta dagoela eta tarte bat eskaini behar diot ume horri bai ala bai”. Estresatuta gaude gauza asko ditugulako gainean, bada, batzuk kendu egin beharko ditugu gainera, eta hori da kostatzen zaiguna. “Nola utziko dut matematika edo ingelesa eman gabe?”, bada bai, utzi, lehentasuna beste bat delako une horretan, biderketa taulak ikasiko ditu aurrerago, zeren umea gaizki baldin badago, ez ditu ez orain ez gero ikasiko biderketa taulak.

**A. MARTINEZ:** Hala izan beharko luke, baina curriculumari eusteko presioa egon badago, dela etsaminengatik, dela proba horietako noten arabera ikastetxeak lor dezakeelako ikasle gehiago edo gutxiago matrikulatzea...

**A. SUSPERREGI:** Baina guraso moduan, zuk nora eramango zenuke zure seme-alaba, exigentzia akademiko horien arabera *top*-aren *top*-ean dagoen eskola batera, ala

seme-alaba ondo egongo den eskola batera?

**Kontuz zeini galdetzen diozun...**

**A. SUSPERREGI:** Hori da, orduan gizarte mailan egin beharko dugu hausnarketa. Non dago arazoa? Gurasoek hori nahi badute, zein gizarte ari gara eraikitzen?



“HELDUA SEGURU EZ  
BADAGO, NEKEZ IZANGO  
DU SEGURTASUNIK  
UMEAK. GU GEU EZ  
BAGARA SEGURU  
SENTITZEN MATEMATIKA  
EZ DEN BESTE HORRETAZ  
HITZ EGITEN, EZ DUGU  
EGINGO, ETA ALDIZ  
EDUKIAK EMATEN  
BADIGU SEGURTASUNA,  
HORRETAN JARRIKO DUGU  
INDARRA”

**A. MARTINEZ**

**Exigentzia akademikoak, gurasoek hautatzen duten ikastetxea... aipatzen ari zaretela-eta, eskoletan lehentasunak leku batean edo bestean jartzeko faktoreetako bat izan al daiteke ikastetxeen artean sortzen den lehia?**

**A. MARTINEZ:** Bai, lehia horrek adierazle batzuk dituelako eta ikastetxe batzuek adierazle horiek betetzeko helburuz funtzionatu dezaketelako.

**M. CENTENO:** Selektibitateko emaitzak, irakurtzen zein mailatan ikasten duten ikastetxe batean edo bestean... erabiltzen dituzte eskolek, lehia horretan. Hori ikusi dugu. Eta

familiei galdetuz gero, esango nuke kasu askotan nahiko ez genukeen erantzuna jasoko genukeela, orokorrean garrantzi gehiegi ematen zaiola lorpen akademikoei, helburuei... Haur Hezkuntzan bertan, ikusita nago eskola batzuetan haurraren inguruko txostena banatzea, eta gurasoek eskatzea zenbakiak, haurrari kalifikazioak jartzea.

**A. SUSPERREGI:** Pedagogia hori egin beharko dugu orduan, zeren curriculum dekretuak orain eskatzen du Haur Hezkuntzan txosten irekiak egitea eta derrigorrezko hezkuntzan konpetentzietan oinarritutako curriculum. Dekretua oso irekia da, jakintzak eta helburuak oso irekiak dira... beraz hori ez da arazoa.

**A. MARTINEZ:** Hasieran esan dugu, heldua gakoa da umeentzat espazio seguruak eraikitzeko, eta heldua seguru ez badago, nekez izango du segurtasunik umeak. Lehen zenioen, Artizar, irakasleei beldurra ematen diela matematika klasea moztu eta beste irakaspen batzuei denbora eskaintzea (gatazkak kudeatzen jakitea ere badelako konpetentzietan hezte), eta gu geu ez bagara seguru sentitzen matematika ez den beste horretaz guztiaz hitz egiten, ez dugu egingo, eta aldiz edukiak ematen badigu segurtasuna, horretan jarriko dugu indarra, beti bilatuko dugulako segurtasuna ematen diguna.

Eta tematuta jarraitzen dut: ikasketa emaitzek pisu handia dute gurean. Emaitza horiek gida bat balira, iparrorratz moduko zerbait, inor sailkatzen ez dutena, bikain, baina nik ikusi dudana ez da hori.

**A. SUSPERREGI:** Bai, nik ere ikusi dut, eta egia da nire esperientzia gehienbat Lehen Hezkuntzako esperientzia dela. DBHn ezberdina da, eta ondoren zer esanik ez, selektibitatean nota bat zara. Inertzia batzuk apurtzea kostatzen da, beldurra dago.





■ **Bada mugimendu bat eskatzen duena ikastetxe bakoitzean psikologo bat egotea. Mireia, mugimendu horren parte zara.**

**M. CENTENO:** Ikastetxe askok egin-dako eskaeraren ondorio da mugimendua, irakasle ugarik gainezka egin duelako, ardura asko jartzen baita haiengan. Aniztasun handiari erantzun behar diote eta sarri horretarako erreminta gutxirekin ikusten dute beren burua, protokoloetan oinarritzen dira ikasle bati eta besteari erantzuteko. Horri gehitu behar zaio emaitza batzuetara ailegatzeko ardura, premia bereziak dituzten ikasleei erantzun

beharra (beti ez dute beren burua horretarako gai ikusten)... Ongizate psikologikoari garrantzia ematen hasi garen honetan, laguntza eskatu dute horri guztiari erantzuteko, irakasleek ez baitakite dena eta gainera ez dute zertan dena jakin. Proposamena da hezkuntza-psikologoaren figura txertatzea ikastetxeetan, ez psikologo kliniko bat (alegia, ez trastornoak edo patologiak tratatzeko), baizik eta eskolan egunerokoan gertatzen diren arazoei erantzuteko. Haur eta nerabeek ordu asko ematen dituzte eskolan, espazio seguru bat bilatzen dute bertan, eta interbentzio batzuk

egiteko leku aproposa dela ulertzen dugu, gainera familiak eskura daudelako. Helburua litzateke arreta goiztiarra egitea (badago protokoloa behar goiztiarrak antzeman eta erantzuteko), oraindik patologiko ez diren baina patologiko bihur daitezkeen gaiei garaiz heltzea ez daitezen patologizatu, behar psikologiko arinak lantzea...

■ **Esperientzia pilotu bat egiteko asmoa ere badago.**

**M. CENTENO:** Espainiako Estatuan lauzpabost urtetako ikerketa bat dago martxan, baina gurean figura hori existitzen da jada, ikastetxe kontzertatu batzuetan. Nik rol hori betetzen dut ikastetxe batean eta ikusten dut lanketarako aukera asko daudela.

■ **Besteek zer diozue, nola bermatu laguntza psikologikoa ikastetxeetan?**

**A. SUSPERREGI:** Proposamen interesgarria iruditzen zait, laguntza edo baliabide bat gehiago litzateke, baina horrek ez du esan nahi irakasleok eskuak garbitu behar ditugunik eta ardura figura horretan delegatu.

**M. CENTENO:** Hor ikusten dut arriskua, ez dugulako ahaztu behar irakaslearen garrantzia ongizate psikologiko hori bilatzeko orduan. Psikologoa laguntzaile bat da, elkarlana da funtsa.

**A. SUSPERREGI:** Gurean ume asko dago psikologo baten laguntza behar duena eta Osakidetza bideratzen ditugu (psikologo pribatua ezingo lukete ordaindu), baina Osakidetza kolapsatuta dago. Koordinatuta gaude eta lan polita egiten da, baina ez da nahikoa inondik inora.

**M. CENTENO:** Hezkuntza-psikologoak lagunduko luke arazoak ez patologizatzen eta agian lortuko luke lanketa motz batekin arazoa konpontzea, arazo guztiak bidera-

tu beharrea osasun sistema publikora.

**A. MARTINEZ:** Nik zalantza asko ditut. Hasteko, galdera da “nola bermatu laguntza psikologikoa ikastetxeetan”, baina izan beharko luke “zergatik ez da bermatzen ikastetxeeko pertsona guztien ongizate psikologikoa”. Hori da abiapuntua, zergatik ez den bermatzen detektatzen badugu, hortik hasiko garelako neurriak eta estrategiak garatzen. Gertatzen da uneotan denok behar dugula laguntza psikologiko hori, agerikoa da, eta ongi ikusten dut zauria dagoenean tiritu jartzea, baina ez da nahikoa, hezkuntza psikologoaren figura ezartzetik harago jarri beharko litzateke fokua. Gaur egun, badaude hezkuntza psikologoak eskoletan, hainbat funtzio betetzen: orientatzaileak, PTak, aholkulariak... eta horrek ez du lortu eskoletan ongizate psikologikoa bermatzea; aldarrikatzen den figura honek lortuko luke? Ez dakit. Behar dela figura bat patologiak agertzen direnean berauek tratatzeko? Bai, baina hirugarren mailako prebentzioaz ari gara, eta nire ustez eskola ez da hirugarren mailako prebentzioa egin behar duena, lehenengo mailako prebentzioa dagokio, eta bigarren mailako prebentziotik zerbait. Eta horretarako, hezkuntza sisteman psikologo profil horiek egon badaude gaur egun, baina birziklatu egin behar dira, dauden beharrei erantzuteko. Orientatzaileek Psikologia edo Psikopedagogia egin dute; beharrak aldatu badira, profila egokitu dezagun.

**M. CENTENO:** Bai, eta dagoeneko dauden figura horiek eraldatzea ere bada mugimenduaren helburua. Arazoetako bat da aholkulari ugari ez direla psikologoak.

**A. MARTINEZ:** Hezkuntza-politikari lotutako arazo bat ere badago, administrazioak ez duelako planifikatzen behar den moduan. Ikastetxe guztiek ez dituzte testuinguru eta

behar berak, eta kasu honetan ere, ez da berdina ikastetxe batean edo bestean behar den arreta psikologikoa. Hezkuntza sistema sare ireki bat izan beharko litzateke, dauden beste sareekin elkarlanean (osasuna, enplegua, ongizatea...) eta horretarako ereduak aldatu beharko genuke, daukagun sistema hain delako zentralista ez duela uzten dauden beharrei erantzuteko zonaldeko baliabideak koordinatzen.



**“GURASO MODUAN,  
ZUK NORA ERAMANGO  
ZENUKE ZURE SEME-ALABA,  
EXIJENTZIA AKADEMIKO  
HORIEK ARABERA  
TOP-AREN TOP-EAN  
DAGOEN ESKOLA BATERA,  
ALA SEME-ALABA ONDO  
EGONGO DEN ESKOLA  
BATERA?”**

**A. SUSPERREGI**

**A. SUSPERREGI:** Egiten dugu hori, ezta? Koordinatzen gara Osakidetzarekin, gizarte zerbitzuekin...

**A. MARTINEZ:** Baina testuinguru lokalagoetan funtzionatu beharko genukeela uste dut, zirkunskripzioak birkonfiguratu beharko liratekeela: herrian edo mankomunitatean zein behar daude eta behar horien arabera nola artikulatu bertako sare ezberdinen arteko programak? Ikastetxeetako proiektuak, testuingurua, bailara horretako beharrak... ezberdinak baitira. Mankomunitate batean agian hiru psikologok egon behar dute kontratatuta zerbitzu publiko bat emateko, eta bertako ikastetxeek psikologo horiek erabili

ditzakete behar diren kasuetarako, baina aldi berean eskolak jarraitu beharko luke prebentzio mailan gauzak egiten (irakasleen formazioan psikologiak pisu gehiago izan beharko luke, esaterako), beste sare batzuetatik ere garatu daitezke ekintzak... Laburbilduz, azterketa sakonagoa behar dugula uste dut, ez dadin izan orain arazo hau daukagu eta baliabide hau jarriko dugu, hori baita Hezkuntza Sailak egiten duen planifikazioaren filosofia.

Berritzeguneak adibidez, non geratu dira? Zer egin dute Berritzeguneekin? Egitura ederra dira ekipo estrategiko lokalak osatzeko, zonaldeka daude banatuta eta ikastetxeetako beharrak jaso ditzakete, baita beste sare batzuetako beharrak ere, batzuk eta besteak ezkontzeko ildoak garatu ditzakete...

**A. SUSPERREGI:** Ados nago baliabide jakin bat jartzetik harago zooma zabaltzeko beharrek. Adibidez Berritzeguneak aipatu dituzu, pentsa, Berritzeguneetako baliabideak asko murriztu dituzte! Eskolako aholkulari, kontsultore eta orientatzaileei pisu handiagoa emango zietela ere esan zuten, konpetentzia gehiago, baina ez dakigu zertan den hori, ezta zein profileko aholkulari eta orientatzaileak bultzatuko dituzten ere.

**■ Zein rol izan behar luke hezitzaileak, eskolak espazio psikologiko seguru bilakatzeko bidean? Zenbateraino eta nola txertatu behar da ikuspegi psikologikoa hezkuntzan?**

**M. CENTENO:** Exijentzia gehiago jarri beharko litzateke irakaslearen prestakuntzan, haurren alderdi emozionalaren akonpainamenduari dagokionez; haurren emozioek alderdi akademikoan duten garrantzian. Ez dakit zehazki zer eskatzen zaion irakasle bati, baina arreta ematen dit aldiro irakasle berriak, gazteak, iristen direla, eta pentsa-





**Garbi dute solaskideek: ikaslearen ongizate emozional eta soziala da oinarria, eta hori gabe arlo akademikoa ez doa aurrera.**





tzen dut, “ze ondo!”, baina gero kon-  
turatzen naiz datozela duela hoge-  
hogeita hamar urteko diskurtso eta  
arazoekin. Adibide bat jartzearren:  
arazoak dituen haurrarekin egin  
behar den lehenengo esku-hartzea  
da pertsona horri erakustea bes-  
terik gabe hor zaudela entzuteko  
eta laguntzeko, asko du enpatiatik,  
akonpainamendutik, predisposizio  
eta jarrera kontua da, baina irakasle  
asko datozkit burura ez ditudanak  
rol horretan ikusten. Abiapuntua  
hori izan daiteke: zer eskatzen zaio  
irakasle izango den horri?

Era berean, aipatu nahi dut gure gi-  
zartean irakasleak oso gutxi balo-  
ratzen direla eta horrek azkenean  
erre egiten dituela. Irakasleek ardu-  
ra eta eragin handia dute gure hau-  
rren bizitzetan eta gehiago zaindu  
behar ditugu, eurek ere zaindu ahal  
izateko.

**A. SUSPERREGI:** Gure ikastetxean,

saiatzen gara ikasgela guztietan  
bi irakasle egon daitezen, bi hel-  
du, hamar-hamabi saiotan. Hau da,  
hogeita bost saioetatik ia erdietan.  
Zuzendaritzatik bultzatuta, ikastur-  
te hasieran bermatzen da antola-  
keta hau, eta zeregin honetarako,  
eskolan gauden aholkulariaz eta bi  
PTez gain [hezkuntza premia be-  
reziren bat duten ikasleak lagundu  
ohi ditu Pedagogo Terapeutikoak],  
ikastetxeko baliabideak antolatuz  
hirugarren PT bat perfilatzen dugu.  
Helburua da bi irakasle izatea ikas-  
gelan ahalik eta denbora gehien, ho-  
rrek aukera ematen dizulako beste  
modu batera jarduteko: askoz erra-  
zagoa da arreta pertsonalizatzea,  
edozein unetan taldetxo bat edo  
ikasle bat aparte hartu eta lanketa  
bat egitea...

Gainera, astean behin irakasleok  
saio bat daukagu gure artean koor-  
dinatzeko, eta saio horretan ikusten

dira beharrak eta erantzunak: hala-  
ko haur ez dugula ongi ikusten? Gu-  
raso batek deitu duela seme-alabari  
buruz hau edo bestea kontaktzen?  
Haur horrengana hurbilketa nola  
egin eta zein esku-hartze egingo du-  
gun, eta zeinek, planifikatzen dugu.  
Eta gero planifikatutako hori gauza-  
tzea ahalbidetzen du gelan bi heldu  
egoteak. Rol trukaketa ere ohikoa  
da gure dinamikan: batzuetan bat  
geldituko da talde handiarekin eta  
beste batzuetan bestea.

**A. MARTINEZ:** Hain justu, irakas-  
leen formazioan hogeitaz hamar urte dara-  
matzat esaten hori egin behar dela  
eskoletan, baina oro har asko kos-  
tatzen da martxan jartzea. Irakasle  
laguntzaileak esku-hartze marko  
estua du zehaztua eta aipatzen du-  
zunean bestelako laguntza zerbi-  
tzu ereduak daudela, irekiagoak,  
zuzenean umearekin esku har-  
tu beharrean bultzatzen dutenak



esku-hartzea egitea elkarlanean irakasleekin, familiarekin, herriko eragileekin... arraro begiratzen dizute. Hezitzaileek bidaide izan behar dute, ume guztien prozesua akonpainatu behar dute, eta horretarako antolatu beharko da eskola, zeren gelan hogeita lau ikasle baldin badituzu aldi berean gauza bera egiten, eta zu baldin bazara horko protagonista, oso zaila da umeen jarraipena egitea. Bestelako estrategia, metodologia eta baliabideak pentsatu beharko dira, gela horretarako.

Eta Mireiak adierazitakoaren il-dotik, uste dut irakasleak formatu behar direla eta gehiago jakin beharko luketela pertsonaren garapenaz, garapen osasuntsu hori bermatze aldera zelan esku hartu ere jakiteko. Diozu irakasle gazteak iristen direla diskurtso zaharrek, arazoa da ezagutza teorikoa ez

“  
HAINBAT IKASTETXETAN  
EGIN DUT LAN, ETA  
OSO NABARMENA  
DA: SEGUN ETA ZEIN  
ESPEKTATIBA DAGOEN  
ZENTRO HORRETAKO  
POPULAZIOARENTZAT,  
LEHENTASUN  
BATZUK EDO BESTE  
BATZUK DAUDE”

M. CENTENO

dela praktikara transferitzen: sari, eskola batean praktketan izan direnean ikusi dutena dute erreferente, unibertsitatea azkenekoa

da beraiantzat. Hori deseraikitzen saiatzen gara irakasle eskolan, bakoitzak egin duenari buruz hitz egin eta gogoetatzeko dugu, egin dutena egokia ez dela ikusiz gero deseraikitze asmoz.

**A. SUSPERREGI:** Ahaztua daukat unibertsitatean ikasi nuena, baina egunerokoak ere asko erakusten dizu, zerk funtzionatu duen eta zerk ez.

**A. MARTINEZ:** Bai, baina egunerokoak erakusten dizu horren bueltan hausnartu baduzu. Egindakoaren gainean gogoetatzeko espazioak izatea eta ohitura hartzea inportantea da.

**A. SUSPERREGI:** Hala da, eta prest egotea onartzeko zerbaitek ez duela funtzionatu, ez dela bide egokia, beste bide bat saiatu behar duzula. Badirudi asko jakin behar dugula irakasleok, baina gako handi bat sentsibiltatea da, begirada, enpatia

izatea; hartu haurra eta hitz egin berarekin, eta batez ere, haurra entzun.

**A. MARTINEZ:** Gure irakaslegaiei asko gertatzen zaie praktikan daudenean eta lanean hasten direnean estatus aldaketa bat bizi dutela, eta estatus erakargarria da, aintzat hartua sentitzen dute euren burua estatus berri horretan, eta hori berresteko batzuetan botere harremanak sortzen dituzte umeekin, beren identitatearekin loturiko beharrak asetzeko: “Ni naiz irakaslea”.

**■ Predisposizioa aipatu duzue. Agian orokorregia da galdera, baina irakasleen artean ikusten duzue**

**GAKOA.** Eskolan darabilten formula azaldu du Susperregik: “Saiatzen gara ikasgela guztietan bi irakasle egon daitezela, horrek aukera ematen digulako beste modu batera jarduteko: askoz errazagoa da arreta pertsonalizatzea, ikasle bat aparte hartzea...”

**predisposizio hori, ala “gu ez gaude psikologo lana egiteko” jarrera nagusitzen da?**

**M. CENTENO:** Une batzuetan, gainezka daudenean, iritsi daitezke bigarren hori pentsatzera, baina esango nuke gero eta gehiago dagoela irakasleen artean predisposizioa, edo gutxienez gero eta kontzienteago garaela predisposizio horren beharraz, besteak beste gero eta gehiago hitz egiten delako kontu hauetaz guztiaz gizartean.

**A. SUSPERREGI:** Nik ere hala uste dut. Azken finean, egoera

lehenago edo beranduago leher-tzen zaizu eskuetan, ezin duzue beste alde batera begiratu. Jarri zaitezke oso-oso zorrotz eta izan zaitezke irakasle zurruna, zurean itsu, ikasleei beldurra emateraino, baina orduan ere, zurekin ez bada hurrengo ikasturteko irakaslearekin lehertuko da egoera, eta patata beroa utziko diozu hari.

**A. MARTINEZ:** Baina egia da egongo direla irakasleak pentsatzen dutenak beren lana ez dela psikologoarena egitea eta nahikoa dutela matematika ematearekin, haurrak beste zerbait behar badu beste profesional batek egon beharko duela behar horiei erantzuteko. Eta sentsibiltatea duten



FREEPIK



irakasleekin erraza da, baina bestelako jarrera duten irakasle horiekin lanketa egitea eta beren pentsamoldea aldatzea oso zaila da.

■ **Solasaldia borobiltzeko, espazio psikologiko seguruen xerka han-hemenka ezagutu dituzuen dinamika gehiagoren adibide eredugarririk?**

**M. CENTENO:** Haur Hezkuntzan konfiantzaren pedagogia jarri dute martxan ikastetxe askotan, eta ikusi da haurraren beharretan zentratuta irakasten duzunean erraztu egiten duzula bidea. Ni aritu naizen ikastetxeetan, ikusi dut 2 urteko haurrei aukera eta espazio ezberdinak eskaintzen zaizkion geletan natural moldatzen direla, aldiz metodologia tradizionalari jarraiki lehenengo ordu erdian haur guztiak eserita mantendu eta ipuin bat entzutea bilatzen zuen ikastetxean beti zeuden arazoak. Irakasle bezala zure beharrei bakarrik erantzuten badiezu, haur guztiak ez dira egokituko.

**A. SUSPERREGI:** Inportantea da gelatik ateratzea, ikastetxeko gainerrako espazioak erabiltzea, patiora irtetea... haurrek batzuetan arnasmuneak behar dituztelako. Nirekin saskibaloira jokatzeko ikasi zituen ume batek biderketa taulak. Erabili ditzagun ikastetxeak eskaintzen dituen espazio eta aukerak, eta lotuta dago lehen esan dudanarekin, gelan bi irakasle izateak ahalbidetzen ditu talde malgu eta dinamikoak.

■ **Eta ikasleak beharren bat duela antzemateko estrategiarik?**

**M. CENTENO:** Oinarria da gaia lantzea: egunerokoan jazarpenaz hitz egiten baduzu, haurrek identifikatuko dituzte jazarpen egoerak eta transmitituko dituzte. Beste gaiekin berdin: tratatu txarrak, antsietatea, depresioa, suizidioa... Izena jartzea eta ikusgai egitea da lehenengo pausoa.



“

**“IRAKASLEGIAIAK LANEAN  
HASTEN DIRENEAN  
ESTATUS ALDAKETA BAT  
DAGO, AINTZAT HARTUA  
SENTITZEN DUTE EUREN  
BURUA ESTATUS BERRI  
HORRETAN, ETA HORI  
BERRESTEKO  
BATZUETAN BOTERE  
HARREMANAK SORTZEN  
DITUZTE UMEEKIN”**

**A. MARTINEZ**

**A. SUSPERREGI:** Tresna asko dago: postontzia (ikasleek kontatu nahi duten zerbait mezu bidez uzteko), mezu positiboena, asanbleak antolatzea... Kontseilu deiturikoetan hartu izan dut nik parte: bakoitzak azaldu behar du aste horretan txa-

lotzeko zerbait, arazoren bat edo ekarpen bat. Helburua da txalo eta ekarpenen zutabeak handitzen eta arazoena konpondu ahala txikitzen joatea.

**A. MARTINEZ:** Solasaldi honen hasieran komentatu dut eskola niretzat dela bizitza topagune bat, non ordu asko igarotzen ditugun, eta hor elkarrekin bizitzen erakutsi behar dugu, egunerokoan eskola horretan sustatzen ditugun eredu bidez: harreman horizontalak landuz, gu haurren gaineratik ez jarritz, umeen ahotsa jasoz... Eta halako testuinguru batean konfiantzan berba egiteko espazioak ahalbidetzen badira, ikasleek berba egingo dute. Ordu asko ematen dute eskolan, gauza asko ateratzen dira.

**A. SUSPERREGI:** Eta horretarako klima behar da. Horregatik da hain funtsezkoa talde bat hartu ahala talde kohesioa lantzea, konfiantza giroa sortzeko.

**A. MARTINEZ:** Eta etengabeko lanketa eta gogoeta egitea. ●

#ElkarEkinEragin



# Euskal Eskola Publikoa

Denona eta Denontzat

